



OÑATIKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: JOSEBA ARREGI

Joseba Arregi preso Oñatiarra espetxean sartu dute berriro eta bigarren espetxe-graduan jarri dute, Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak erabakita, Auzitegi Nazionalako Fiskaltzak eskatu ondoren.

Martuteneko espetxeko tratamendu-batzarrak hirugarren gradua ezarrita zion Josebari aurreko otsailaren 23an. Legeak dioen bezala, reintegrazio prozesuan, legeak dioen baldintza guztiak beteta eta lege arrunta aplikatuz. Inongo arazorik gabe, ez bere egunerokoan ez eta Oñatiko herriarenean.

Josebak 76 urte bete ditu aurten, eta bere zigorra osoki, 2026ko abenduan beteko luke, 29 urte daramatza espetxean. Beraz, bere zigorraren 3/4ak beteak eta Legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu 3º graduan eta baita baldintzapeko askatasuna izateko ere. Baina batez ere azpimarratu nahi dugu egoeraren gogortasuna Josebak 76 urte izateagatik.

Udal korporazio honek bere kezka adierazi nahi du Fiskaltzak espetxe-organoek hartutako ebazpenen aurka behin eta berriro errekurtsioak jartzen dituela eta. Izan ere, kontuan hartu behar da organo horiek direla presoek espetxean duten bilakaera ondoen ezagutzen dutenak.

Hori dela eta, eskatzen dugu, ebazpen judizialek merezi duten errespetua aintzat hartuta, ebazpen horiek bateragarriak izan daitezela espetxeetako administrazioko organoen erabakiekin, gradu progresioak eta/edo espetxeko baimenak arau izan daitezen, eta ez salbuespena.